



# five!

98.  
zenbakia  
2007ko  
martxo

HELBIDEA:  
Ametzagaña 19  
Behesolairua,  
DONOSTIA 20.012  
Tlf: 943 27 55 61  
e-posta:  
joxemi@joxemi.org

KOORDINAZIOA ETA  
MAKETAZIOA:  
Asier Coloma

Txubillo inprimategian egina.  
SS-463/97

## EMAKUMEOK GURE ESKUBIDEAK BORROKATUZ Bilgune Feministak Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira egindako irakurketa.

2007ko martxoaren 8 honetan, nahiz eta emakumeon egoeraren irakurketa ezkorra egin beharrean aurkitzen garen, azpimarratzekoa da ere lan eremu berriak jorratuz edota gure generoari betidanik atxikitako baldintza eta betebeharrak espezifikoa ezbaian jarri, eskubideen lorpen eta aitortzaren bidean sendo jarraitzen dugula.

Oraindik, jaiotzen garen sexuagatik bizi baldintza eta eskubide desberdinak izaten jarraitzen dugu. Emakume izateaz gain, desberdintasunak are gordinagoak dira etorkina, gaztea, etxekoandrea edota beste kolektibo zapalduren bateko partaidea izan ezker. Kasu hauetan, lan baldintza duinak dituen lan bat lortzea, pentsio egokiak jasotzea edota dagokizun lanpostua izatea ezinezkoa da.

Emakumeon kontrako indarkeriak sexuen arteko harreman hierarkikoak bizirik dirautela adierazten digute. Erasotzaileen adin gaztea edo erasoetan erabiltzen den bortizkeria maila igo da. Jai eta aisi eremuetan, ikastetxe eta gazte guneetan ematen ari den bortxaketa eta erasoen gorakadak emakumeok espazio guztietan aske eta seguru ibiltzea ekiditen ari da.

Sistema patriarkala lan mardula egiten ari da emakumeok betidanik bete dugun bigarren mailako herritar papera betetzen jarrai dezagun. Beharrak bultzatuta gutxieneko kontzesioak egitera iritsi badira ere, gobernu, instituzio erlijioso, hezkuntza erakunde eta bestelako instituzio atzerakoiek ez dute sistema sozial osoa sustengatu eta isilpean egiten den emakumeon lana errekonozituz eraldakuntzaren bidea egingo.

Are gehiago, Euskal Herriko lurraldeetako gobernu anitzak emakume eta gizonen arteko eskubide berdintasuna lortzeko,

garatzeko aurrekonturik ez duten lege eta plan ugari sortu dituzte beraien lana zein antolatua eta ongi eginga duten erakusteko. Botoak biltzeko eginiko korte sozialeko neurri populistak martxan jarriaz ez da emakumeon egoera aldatuko.

Emakumeok ez gaude besteek gure eskubideak noiz aitortu zain. Sexuen arteko harreman bidezkoetan oinarritutako Euskal Herri askea eraikitzeko bidean guk tresna berriak sortu eta borroka egingo dugu errespetatuak izan daitezten. Tresna hauetako bat, udaberrian onartuko dugun Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Gutuna, emakumeok gure beharrian eta eskubide hutsuneen inguruan eginiko eztabaidaren ondorioa da. Borroka feministaren norabidea eta aldarrikapenak birkokatze oinarri sendoa ezartzeaz gain, emakume guztiok biltzen gaituen agiria.

Martxoak 8 honetan, urteko beste 364 egunetan bezalaxe, irten gaituzten kalera emakumeok, herritar orok dituen eskubide eta aukera berdinekin izatea nahi dugula aldarrikatuz kale, auzo, plaza, herri eta hiriak beteko ditugu.

Herritar eta eragile guztiei dei egiten diegu emakumeon aldarrikapenekin bat egin eta guztiok batera Euskal Herri berri eta justuago bat sor dezagun, Euskal Herri feminista bat.

Mugimendu feministaren deialdi batzuk:

- Bilbo: 19:30ean Arriagan
- Gasteiz: 20:00etan Andramari Zurian
- Iruñea: 20:00etan Autobus Geltokian
- Donostia: 19:30ean Bulebarrean



## BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI!

Euskal Herriko ikasle guztiek euskara ezagutu dezatela bermatzea. Horixe da *Bai Eskolak Euskalduntzeari!* dinamika babesten duten eragileen helburua. Aldarrikapena ez da atzo goizeko kontua, baina talde hauek iaz abiatutako dinamikari esker, eztabaida agendako lehen puntuaren artean kokatu dute. Izan ere, iaz abiatutako sinadura bilketan 107.768 herritarrek beren babes eman zioten Euskal Herri ososan aldarrikapen horri.

Dinamika honen bultzatzaileen arabera, euskara ezagutzea euskal herritar ororen eskubidea da. “Nazioarteko hainbat adierazpenek, berezko hizkuntza ezagutzea lurralde horretako herritar guztiek duten eskubidea dutela adierazten dute. Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza da. Beraz, eskolak belaunaldi berriak euskaldundu behar ditu”.


### Unearen garrantzia

Dinamika hau indarrean jarri zuten eragileek iaz jasotako 107.768 sinadurak Udalbiltzaren, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren nahiz Euskararen Erakunde Publikoaren eskuetan utzi ostean, indar berria eman nahi diote aldarrikapenari ekimen berriekin.

Une garrantzitsua da aldarrikapen hau aurrera ateratzeko. “Inoiz baino agerikoagoa da egun Euskal Herri osoan derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasleei ez zaiela euskara ezagutzeko eskubidea ziurtatzen. Hau euskararen etorkizunerako datu benetan larria da. Jakin badakigu eskola ez dela jendartea euskalduntzeko erantzukizuna duen tresna bakarra. Baina bistan denez, eskolak oso funtzio

### EGUNGO EGOERA

Kasurik onenean ikasleria osoaren %31,8 euskaldunduko da



Ikasleria osoaren %68,2 ez da euskaldunduko

-89.666 ikaslek (ikasleriaren %20,7) klase guztiak gaztelaniaz edo frantsesetz jasotzen ditu.

-106.269 ikaslek (ikasleriaren %24,6) klase guztiak gaztelaniaz edo frantsesetz jasotzen ditu, eta euskara irakasgaia ematen dute lau orduz astean.

-72.419 ikaslek (ikasleriaren %16,7) hainbat klase erdaraz eta beste hainbat euskaraz jasotzen ditu.

-164.735 ikaslek (ikasleriaren %38) klase guztiak euskaraz jasotzen ditu, eta gaztelania edo frantsesa ikasgai bezala jasotzen dute.

**DATU HAUEN ARABERA, 437.729 IKASLETIK 297.055 (%68,2) EZ DIRA EUSKALDUNDUKO.**



## BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI!



garrantzitsua jokaten du Euskal Herriaren euskalduntzean, eta hau nabarmendu egin behar da”.

Nolanahi ere, hainbeste eragile eta herritarren babesa jaso duen eskakizun batek instituzioen aldetik jaso duen erantzuna, oro har, eskasa izan dela salatu dute. Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuari dagokionez, Euskararen Erakunde Publikoarekin elkartu dira. “Erakunde honek *Hizkuntza Politika Proiektua* onartu berri du. Proiektua euskararen ofizialtasun ezan oinarritzen da. Beraz, euskarazko eskaintzan hainbat urrats ekar ditzakeela onartu arren, egitasmoak ez die egungo beharrei erantzuten”, salatu dute.

Nafarroa Garaia dagokionez, “azkenaldian Nafarroako Parlamentuak zenbait urrats eman baditu ere (ikastola zenbait legal bihurtu), jendartearen urteetako presioaren ondorio dira, eta baita hauteskundeak gertu daudenaren seinale”.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan berriz, Gasteizko Parlamentuak erabaki zuen 2007ko otsailean ereduaren politika aldatu behar zela. “Eremu administratibo honetan aukera historiko baten aurrean egon gaitezke, baina arriskuz beterikoa ere bada. Aldaketak ikasle guztien euskalduntzea bermatu behar du”, diote.

Erantzun eskas horren beste aldean, Udalbiltzarekin egindako bilkura nahiz 2006ko urrian egindako Nazio Eztatanda positiboki baloratzen dituzte ekimenekoei.

Esan bezala asteotan mobilizazio eta sentsibilizazio kanpaina egiten ari dira eskolak euskaldundu dezala lortzeko. Martxoaren 10ean Donostian egingo duten ekitaldiarekin bukatuko dute.

### MARTXOKO DEIALDIAK

#### Martxoak 1

-Gasteiz: Auto karabana, 18:00etan Mendizabaletik.

#### Martxoak 2

-Bilbo: Haurrentzako jaialdia 17:00etan Plaza Barrian eta 18:00etan kalejira udaletxeraino.

-Iruñea: Manifestazioa 18:30ean autobus geltokitik.

#### Martxoak 3

-Altsasu: Manifestazioa.

-Gernika: Haurrentzako jaialdia.

-Hernani: Haurrentzako jaialdia.

-Ordizia: Jaialdia.

-Zarautz: Jaialdia.

#### Martxoak 4

-Errenteria-Oregeta: Haurrentzako jaialdia 11:00etan, eta kalejira 12:30ean Zumardian.

#### Martxoak 9

-Gasteiz: Manifestazioa 19:00etan Bilbo plazatik.

#### Martxoak 10, EKITALDI NAGUSIA

Donostiako Antiguako pilotalekuan, 11:30ean.

## ZAHARRAK BERRI



### “JARRAI-HAIKA-SEGI” AUZIAN ZIGORTUTAKO GAZTEAK ESPETXEAN

Otsailaren 4an ertzainek “Jarrai-Haika-Segi” auzian Auzitegi Gorenak zigortutako gazteetatik 18 atxilotu eta espetxeratu zituen, Bilboko La Esperanza frontoian. Aurretik, dagoeneko auzi horretan zigortutako beste lau gazte espetxeratu zituzten. Itxaropenaren frontoian elkartutako ehunka lagun eta senideen babesa eta berotasuna eduki zuten uneoro gazte independentistek. Animo oihu, besarkada eta txalo zaparraden artean eraman zituzten gazteak. Atxilotetak eman eta gutxira kontrako protesta ekintzak ugaritu egin ziren Euskal Herri osoan.

### MILAKABILAKA

*Elkarrizketa. Errespetua Euskal Herriari. Bakea* lelopean mobilizazioa egin zuten milaka herritarrek Bilbon otsailaren 3an. Euskal jendarteko hainbat eta hainbat lagun elkarrizketa eskaera egiteko bildu ziren, bakea lortzeko beste alternatibarik ez dagoela uste baitute. Aurrerantzean ere jendearen konpromisoa bilatzen segiko dutela aurreratu zuten.



### EGUNKARIAREN KONTRAKO EPAIKETARIK EZ

Otsailaren 20an elkarretaratzea egin zuten *Egunkariako* auzipetuek, langile ohiek nahiz hainbat lagunek Martin Ugalde parkean, egunkaria itxi zutenetik lau urte igaro zirenean. Epaietarik ez egoteko eskatu zuten.

### ALOKAIRU SOZIALA

Elkartzen Euskal Herriko eskubide sozialen aldeko mugimendua k hainbat mobilizazio egin zituen otsailean etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko. Bost ardatz ditu beren eskaerak: etxebizitza eskubidea da, hutsik dauden etxeei erabilera eman, alokairu publikoa garatu, alokairuei mugak jarri eta etxebizitzaren kudeaketa soziala bultzatu.



### PRESOEN PROTESTA

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak autodeterminazioaren eta amnistiaren aldeko protestak egin zituen espetxeetan. Horrela, itxialdia, propaganda astea nahiz astebeteko komunikazio greba egin zuten presoek. Protestak espetxeetako hormetatik kanpora ere izan zuen isla.


## DEIALDIAK

### HELDU!


Korrikaren 15. edizioa martxoaren 22an hasiko da Karrantzan, eta apirilaren 1ean bukatuko da Iruñean. Korrika Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Euskal Herri osoan zehar egiten duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia da, eta aurten *Heldu!* leloarekin dator. Heldu hitzari, lekukoari, elkarlanari, euskarari, herriari.

Korrika berezia izango da aurten. Izan ere, Korrika 15ek euskal emakumea omenduko du, euskal emakumeak gure hizkuntzaren transmisioan izan duen garrantzia eta ezinbesteko papera goraipatu nahi dituelako.

Euskal Herria luze zabalean zeharkatuko du lasterketak: martxoaren 22an Karrantza, Zalla zein Laudio, 23an Ribabellosa, Miranda nahiz Briñas, 31n Kanbo eta Hiribururu... eta apirilaren 1ean Lizaso eta Ostiz igaro ostean, Iruñeara iritsiko da euskararen aldeko lasterketa.



### MARTXOAK 3



Martxoaren 3an manifestazioa egingo dute Gasteizen, duela 31 urteko sarraskia oroitarazi, eta justizia eskatzeko. Mobilizazioa 19:00etan abiatuko da, Martxoaren 3ko plazatik. 1976ko martxoaren 3an Gasteizko langileak greban zeuden beren aldarrikapenen alde. LangileakSG asanblada egiten ari ziren, Zaramaga auzoko San Frantzisko elizan. Poliziak tiroka ekin zion elizan elkartuta zeuden langileen kontra. Bost pertsona (Romualdo Barroso, Francisco Aznar, Pedro Martinez Ocio, Jose Castillo eta Bienvenido Pereda) hil zituzten, eta ehundik gora lagun zauritu zituzten.

### EZKERRALDEKO GAZTETXEAK

Martxoaren 31n Ezkerraldeko lau gaztetxeren aldeko martxa egingo dute. Hain zuzen ere, Santurtziko La Kelo gaztetxearen, Mamariagako kultur etxearen, Olabeagako Garabia gaztetxearen eta Barakaldoko Dorretxea gaztetxearen alde. Okupazioaren aldeko martxa Santurtziko plazan hasiko da 10:00etan, eta 18:00etan Olabeagako gaztetxean bukatu.

### ERRAUSKAILURIK EZ

Errauskailuaren kontrako plataformaren koordinakundeak manifestazioa deitu du hilaren 3an Donostian. 17:00etan abiatuko da martxa, Anoetako estadiotik. *Alternatibak daudelako, errausketarik ez!* Referéndum ya! lelopean egingo dute manifestazioa.



### AISIALDIA EUSKARAZ ATARRABIAN



Atarrabiako Karrikaluze elkarteak antolatuta, kultur programazioa euskaraz gozatzeko aukera egongo da datozen egunetan. Horrela, hilaren 15ean zinea euskaraz ikusi ahal izango da. Sei film labur emango dituzte, 20:00etan Gune Eszenikoan. Eta hilaren 23an Atikus antzerki taldeak *Uharte bat izanen naiz zuretzat* lana taularatuko du. 20:00etan izango da, Gune Eszenikoan.

### GERRARIK EZ, OKUPAZIORIK ERE EZ

Irak inbaditu zutenetik lau urte igaro direla eta, manifestazioa egingo dute martxoaren 24an, *Gerrarik ez, okupaziorik ere ez!* Konponbide bakarra bidezko bakea da lelopean. Mobilizazio honen bidez, Irakeko herriaren kontra egiten ari diren sarraskia salatu nahi dute. 25 herri mugimenduk egin dute oraingoz deialdia.

484 urteko zigor eskaera  
lan politiko eta soziala egiteagatikEskubide zibil eta  
politikoen alde**MANIFESTAZIO  
NAZIONALA**MARTXOAK 10, 17:00etan  
BILBO - LA CASILLAN

18/98+

15 hilabete joan dira 18/98 epaiketa hasi zenetik. Epe luze honetan egindako epaiketan, abokatuek argi eta garbi erakutsi dute makro-sumario honek ez duela inolako funts juridikorik. Hala ere, fiskalak honako espetxe zigor eskaerak egin ditu:

**JOXEMI ZUMALABE**

-Mikel Aznar 7  
-Iñaki O'Shea 7  
-Sabino Ormazabal 7

-Mikel Zuluaga 7  
-Olatz Altuna 7  
-Fernando Olalde 7  
-Alberto Frias 7  
-Mario Zubiaga 7  
-Pepe Uruñuela 0

**ENPRESAK**

-Juan Pablo Dieguez 7  
-Bixente Askasibar 9  
-Bigarren Ibarra 9  
-Iker Beristain 7  
-Joxe G. Mijangos 9  
-Inma Berriozabal 7  
-Joxean Diaz Urrutia 7  
-Joxean Etxeberria 13

**EKIN**

-Imanol Iparragirre 9  
-Patxi Gundin 9  
-Txema Matanzas 9  
-Ruben Nieto 9  
-Ana Lizarralde 9  
-Olatz Egiguren 9  
-Paul Asensio 9  
-Oiakue Azpiri 7  
-Marta Perez 7  
-Juan Mari Mendizabal 9  
-David Soto 9  
-Jaime Iribarren 9  
-Xabier Balanzategi 9  
-Natale Landa 9  
-Xabier Arregi 9

-Iker Casanova 9

**XAKI**

-Mikel Egibar 9  
-Nekane Txapartegi 9  
-Jose Ramon Antxia 9  
-Mikel Korta 9  
-Jokin Gorostidi 15\*  
-Joxe Mari Olarra 9  
-Elena Beloki 9  
-Miriam Campos 9  
-Iñigo Elkoro 12\*\*

**ORAIN**

-Karlos Trenor 11  
-Xabier Alegria 13  
-Manuel Intxauspe 11  
-Isidro Murga 19  
-Patxi Murga 19  
-Maite Mendiburu 11  
-Xabi Otero 4  
-Jabier Salutregi 7  
-Teresa Toida 7  
-Jose Luis Elkoro 19  
-Iñaki Zapiain 4  
-Jexuxmari Zalakain 19  
-Jose R. Aranguren 48\*\*  
-Pablo Gorostiaga 11

\*Iaz hil zen

\*\*Gaixotasunagatik, bakarka epaituko dituzte.

Eskubide zibil eta politikoen alde, martxoaren 10ean denok Bilbora!

**HARPIDETZA TXARTELA**

Izen-abizenak: ..... Taldea: .....

Helbidea: ..... Herria: .....

PK: ..... e-posta: ..... Tlf: .....